

HAURREN AISIALDI PARTE-HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN



HERRI
HEZITZAILEA

1

- Herri Hezitzailea lantaldea:

Irrien Lagunak Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorgunak ikertegia (Huzezi, MU), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pil-pilean euskara elkarte, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Urtxintxa Bizkaia Eskola eta Ttakun Kultur Elkarte.

- Koaderno honen egilea eta eragilea:

Lorea Agirre Dorronsoro (Sorguneka ikertegia (Huezi, MU))

- Maketazioa eta ilustrazioak:

Eñaut Aiertzaguena Bravo

-Argazkiak:

Oarsoaldeko Irrien Lagunak

- Inprenta:

Gertu inprimategia

- Babesleak:



- Bildumaren ISBN:

978-84-606-672-6

- Ale honen ISBN:

978-84-606-7247-0



Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **hauren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Eurek eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez** eta **ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta ase-garriak jostea.

AURKIBIDEA

- NOR GAREN	6
- HAURTZAROAREN KULTURA	8
- HAURREN PARTE-HARTZEA	11
- BALIO HEZITZAILEAK	17
- GURE IZAERA	25

NOR GAREN



2012an, haurren hezkuntza eta aisia beste modu batean egin zitezkeela amesten genuen sei eragile Andoainen (Gipuzkoan) elkartzen hasi ginen. Teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, benetako parte-hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburua hartuta, hainbat urrats egin ditugu. Bide horretan, taldea handitzen eta aberasten joan da, hainbat eremutako eragileak batuz. Eta, orain, honako hauek osatzen dugu talde eragilea:

- **Irrien Lagunak Kluba:**
Joxemari Agirretxe eta Josi Oiarbide
- **Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea:** Txusma Azkona eta Alfredo Hoyuelos
- **Hik Hasi pedagogia-ekimena:**
Joxe Mari Auzmendi
- **Oarsoaldeko Garapen Agentzia:** Joxe Luix Agirretxe eta Jaione Urruzola
- **Topagunea:** Sonia Perez eta Jasone Mendizabal
- **Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU):** Lorea Agirre
- **Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea:** Iraultza Urrutia eta Nagore Amondarain
- **Tabakalera:** Ana Rebuelta eta Leire San Martin
- **Amarauna:** Irati Seiyo eta Eñaut Aiartzaguena
- **Pil-pilean euskara elkarte, Kukumixo:** Maite Quintanilla
- **Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte:** Eneko Barberena, Amaia Etxabe, Maialen Gorosabel eta Mireia Baz
- **Urtxintxa Bizkaia:** Iker Blas
- **Ttakun Kultur Elkarte:** Jokin Labaien

Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu. Eta horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

HAURTZAROAREN KULTURA

Zer da?

Haurtzaroaren kultura pentsamendu- eta praktika-lerro bat da. Haurtzaroaren kulturaz hitz egiteak, lehenik eta behin, **zera onartzea dakar: hurrek euren modu etiko, estetiko eta poetikoa dute mundua ikusteko, eta gai dira euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeko.**

Haurtzaroaren eremuez hitz egiteak haurtzaroaren kulturaren eta jolasaren eraginkortasuna eta beharrezkotasuna aitortzea dakar berarekin. Haurtzaroak jatorrizko iruditeria kultural bat duela aitortzen ez duten helduek ez dituzte errespetatzen ez haurtzaroaren kulturarako eta ez jolaserako eskubideak.

Haurtzaroaren kulturaz hitz egiteak esan nahi du haurtzaroaren gaitasunak eta ahalmenak aitortzea. **Haurrak gaitasunak ditu, erabakitzeko gaitasuna du, ekimena du, harreman afektiboak gauzatzeko gai da, ezagutza eraikitzen du, eta nortasuna eta kultura ere garatzen ditu.**

Loris Malaguzzi pedagogoen ideietan oinarriturik, horrela laburbil daitezke gaitasun eta ahalmen horiek: haurra

eraikitzailea da besteekin batera, interakzionista da, ekologikoa –harreman soziokultural askotarikoen bidez eraikitzen du bere burua–, genetikoa –ahalmen handiko izakia da haurra, baina, aldi berean, haren heltze-erritmoa eta aurretik igarri ezinezko garapena errespetatu behar dira, estimulazio goiztiarreko programekin behartu gabe–, konplexua, baikorra eta zalantzaduna da; haurra gai da bere bilakaeraren bidea jorratzeko; autonomia, ekimena eta erantzukizuna izateko; solidarioa da, aktiboa, parte-hartzailea, eta bere bizitzari zentzua emateko eta gizateari itxaropena ekartzeko gai da. Ume bakoitza gizaki berezi, konplexu eta bakarra da.

Bizitzako lehen unetik haurra bestee-kiko harremanean eraikitzailea dela dio Malaguzzik. Alegia, bere bizitzaren, ezagutzaren, kulturaren eta nortasunaren eraikitzaile aktiboa dela, inguruarekin eta inguruan dituenekin harreman etengabea. Jaiotzaren unetik gara gai eraikitzeko eta egiteko, ez da gerora, heldutan, agertzen den gaitasuna bat. Horregatik, gizarteko kide aktibo gisa ulertu eta onartu behar da.

Malaguzziren hitzetan, “gaitasunetan aberats, indartsu eta boteretsu” izaten laguntzea da kontua. Haurra horrela irudikatzen du: mundua esperimentatzen duen ume bat, munduaren parte sentitzen dena jaiotzen den unetik bertatik, jakin-minez beteta dagoena eta

“hurrek euren modu etiko, estetiko eta poetikoa dute mundua ikusteko”

bizitzeko gogoia duena; komunikatzeko desira eta gaitasuna lehen egunetik dituen, bere burua kokatzeko mapa sozial, kognitibo, afektibo eta sinbolikoak eraikitzeko gai dena.

Horregatik, ez dago haurtzaro 'natural' edo unibertsal bat, ez eta haur 'natural' edo unibertsal bat ere. Haurrak daude, eta haurtzaro mota asko dago. Haurtzaro ona haurra bere gaitasun guztiekin onartzen duena litzateke, eta gaitasun horiek garatzera bultzatzen duena.

Haurra ikasteko gaitasunarekin jaiotzen da, ez dauka galdetu beharrik ez eta heldu baten baimen beharrik ere ikasten hasteko. Ekintza kooperatibo eta komunikatiboa da ikasketa, eta haurra eragile aktiboa da hor; jakintza eraikitzen du, eta munduaren gaineko esanahiak sortzen ditu, beste haur batzuekin eta helduekin elkarrekikotasunean.

Horregatik, Malaguzzik **haurrak eta helduak bilduko dituzten elkarguneak sortzea proposatzen du, kultura eta jakintza lankidetzan sor ditzaten.** Hori posible izango bada, onartu beharra dago haurrak ahots propioa duela, eragile soziala dela eta bere bizitzaren eraikitzaile dela; baina, aldi berean, bere inguruan bizi direnen eta, oro har, bizi den gizartearen eraikitzaile ere badela onartu behar da.

Jolasaren garrantzia: haurtzaroaren kulturaren funtsa

Ume eta gaztetxoek jarduera nagusia jolastea da, eta hori da haurtzaroaren kulturaren funtsa. Jolasa jarduera liluragarria da. Inor jolasean ikusten dugunean, hunkitu egiten gara, jakin-mina pizten digu, eta dibertsioa eragiten.

Izan daiteke iradokitzen duen misterioarengatik, beste kode bat eskatzen duelako; izan daiteke behatzaileari haurtzaroko oroitzapenak ekartzen dizkiolako; izan daiteke ustekabea eta barregura eragiten dituelako.

Francesco Tonucci pedagogoak esan ohi duenez, jolasak berebiziko garrantzia du. Munduaren konplexutasunaren aurrean jartzen da haurra, mugarik ez duen jakin-minarekin, dakienarekin eta

“Haurra ikasteko gaitasunarekin jaiotzen da, ez dauka galdetu beharrik ez eta heldu baten baimen beharrik ere ikasten hasteko.”



ez dakienarekin. Eta baita jakin nahi duenarekin ere. Askatasun osoa du jolasean, egin ezin duena asmatu egingo duelako. **Jolas librea eta bat-batekoa helduen ikerketa zientifikoaren, arte-sorkuntzaren edo mistikaren parekoa da.** Jolastea denbora galtzea da, eta denbora galduz bihurtzen gara heldu. Jolastea denboran galtzea da, eta munduarekin topatzea. Jolastea gozamina da, eta, horregatik, jolasean dabilen umea jateaz ere ahaztu egiten da.

Hala ere, lilura hori bera da, neurri batean, jolastearen ekintzak berarekin dakarren mespretxuaren erantzule; izan ere, jolastearen irudi erromantikoa, idealizatua eta esentzialista ematen da sarri, eta horrek jolasaren ezaugarrien eta motibazioen ulermen zorrotz eta kritikoa eragozten du. Horren ondorioz, jarrera ironikoa hartzeko, barregarri uzteko eta mespretxurako arrazoi bilakatzen da jolasa bera, baita jolasten ari dena ere. **“Egiteko besterik ez edukitzea” leporatzen zaio jolasten ari denari, jolasa funtsezko ez den zerbaitekin eta nagikeriarekin lotuz.**

Bestalde, jolasa bizitzan dagokion tokian jar dezakeena ez da pasiorik gabeko begirada zientifikoa, jolasaren

ekintza ez baita makurtzen; hezigabea da, ezezaguna, aurretik jakin ezin dena, bere liluramenduaren arrazoia bera.

Tonuccik dio haurrak jakin badakie-la, jaiotzetik ikasten, esperimendatzen, formulak proposatzen ari dela. Jolasa munduari behatzeko eta mundua erakitzekeo bidea dela. Tonuccik dio ez dela egia umeak ez dakiela ezer, orri zuri bat dela, eta, hezkuntzaren bitartez orrian idatziz, jakintza bereganatzen duela. Egia justu kontrakoa da.

Umearen garapenaren garai funtsezkoena jaio eta eskolara joan aurrekoa da. Hor izaten ditu irakaspen handienak, ondorengo guztiaren oinarri izango direnak. Umea eskolara ez doa sakelak hutsik dituela, betebeteta dituela baizik, eta dakarren hori erakutsi edo irakatsi dezan da eskolaren egitekoa. **Baina umeak nola daki dakiena? Horra hor hurrengo galdera funtsezkoa. Eta erantzun argigarri eta zentzuzkoa: jolasaren bidez.**

Baina jolasa zer da? Jolas guztiak jolas al dira? Françoise Dolto psikoanalistak dio **“jolasa askatasunez arriskatzeko gozamina”** dela. Jolasak, jolas izateko, askea izan behar du, eta arriskuak hartu eta bizitzeko aukera eman behar du. Bestela, ez da jolasa, errituen errepikapen bat da. Akuria, gurpiltxoan sartuta, jirabiraka. Baina gaur egun nolakoa da jolasa oro har? Arautua, arriskurik gabekoa, kontrolatua, zaintzapekoa, dibertsiorik gabekoa... Eta jolasa, arriskurik gabekoa, oso arriskutsu bilakatzen da.

“Egiteko besterik ez edukitzea leporatzen zaio jolasten ari denari, jolasa funtsezko ez den zerbaitekin eta nagikeriarekin lotuz.”



HAURREN PARTE—HARTZEA

Zergatik jarri haur eta gaztetxoen parte-hartzea erdigunean?

Orain arte heziketaren munduan aritu garenok, oro har, despotismo ilustratuaren bertsio gaurkotu bat besterik ez dugu jarri mahaiaren gainean, salbuespenak salbuespen: **dena haurrentzat baina haurrak kontuan hartu gabe**. Beste era batean esateko, haurren nahiak eta beharrak identifikatzen ahalegindu gara modako korrante pedagogikoari jarraiki, eta emaitza gazi-gozaok eskaini dizkigu horrek.

Gaur egun, haurren parte-hartzea oso zabaldua dagoen kontzeptua da. Hala ere, benetako parte-hartzeaz hitz egitea falta dela azpimarratu nahi dugu; hau da, gure egunerokotasunean barneratuta egon behar du, eta haurren identitatearen garapenarekin lotuta. **Ekintza puntual bat edo aparteko ekintza puntual bat izateari utzi behar dio, eta gizartea eraikitzeo eta bere identitatea definitzeko tresna dela ulertu behar dugu.**

Hiztegian parte-hartze hitza bilatuz gero, honako hau aurkituko genuke: zerbaitetan parte hartzea zerbaiten parte bat hartzea, partekatzea, beste pertsona baten iritzi edota ideia bera izatea, parte ematea, berriak komunikatzea. Beraz, parte-hartzeak hiru ezaugarri hauek batzen dituela ondoriozta dezakegu: **jaso, zerbaitetan**

parte hartu eta partekatu.

Parte-hartzearen inguruan hitz egiten dugunean, norberari eta komunitateari eragiten dioten erabakiak adierazteko eta horiek gizarteak onartzeko gaitasunari buruz ari gara. Beraz, komunitateko edozein kiderentzat, partaidetzarako eskubidea izango da eskubiderik garrantzitsuena. Haurrarentzat zein helduarentzat.

Zer esan nahi du haur eta gaztetxoak parte-hartzaile egiteak? Protagonista izango direla? Edozein proiekturen aukeraketan, diseinuan eta antolaketan, ahots propioa izango dutela. Ezin da ezer inorentzat egin, inor hori kontuan hartzen ez bada. Baina harago joan beharra dago. **Inor kontuan hartzea ez da nahikoa, hitza ematea ez da nahikoa; inori iritzia eskatu baino askoz gehiago egin behar da:** antolaketa, erabakitzeo eskubidea eta baliabideen kudeaketa zintzoki protagonista den taldearen eskutan utzi behar dira, bertako kide guztiek modu partekatu batean eta berdinetik berdinerara landu ditzaten. Nork bere burua antolatu behar du, taldean eta komunitatearen onurari begira.

“Inor kontuan hartzea ez da nahikoa, hitza ematea ez da nahikoa; inori iritzia eskatu baino askoz gehiago egin behar da.”

Haur eta gaztetxoek parte-hartzeak ezin du erretorikoa izan, errealak eta zintzotasunez onartutakoa baizik. Haur eta gaztetxoak ez dira egitasmo honen kontsumitzaile huts, ez dira gonbidatu.

Komunitate osoari begirako proiektuetan, komunitate osoa hartu behar da kontuan; hitza eman behar zaio, elkarri entzun behar diote, partekatu eta erabakiak hartu behar dituzte. Haurrak partaide gisa erdigunean jartzeak, hala ere, komunitategintzari beste dimensio bat ematen dio, hain zuzen ere **ahulenaren neurrira egindako gizarte izango delako benetako gizarte**

inklusibo, justu eta bizigarria.

Tonuccik honela arrazoitzen du: “Jakina, haur eta gaztetxoentzat proposatzen dugun horrek hiritar guztientzat balio du, hirugarren adinekoentzat, gutxiegitasun fisiko edo psikikoak dituztenentzat, gazteentzat, beste komunitateetako jendearentzat. Berrito ere, haur eta gaztetxoek erakusten digute bidea egiten, eta guztiontzat berme da haur eta gaztetxoak kontuan hartzea. (...) Inork ezin ditu haur eta gaztetxoak ordezkatu, eurekin hitz egiteko ardura hartu gabe, eurak inplikatu gabe, eurei entzun gabe. Haur eta gaztetxoei hitz eginaraztea ez da guk (helduok) sortu ditugun hiriko arazoak konpon ditzaten eskatzea. Euren ideia eta proposamenak kontuan hartzea baizik. Ez da erraza haur eta gaztetxoei hitza ematea, ezta esaten dutena ulertzea ere. Kuriositate handia behar da, eta aten-

“Ahulenaren neurrira egindako gizarte izango delako benetako gizarte inklusibo, justu eta bizigarria.”



tzioa, sentikortasuna, tolesgabetasuna. Benetan sinetsi behar dugu haur eta gaztetxoek guri esateko eta emateko gauzak dituztela, horiek helduon gauzetatik desberdinak direla eta, beraz, merezi duela esan nahi dutena esaten uztea. Horretarako, lagundu egin behar zaie haur eta gaztetxoei, erantzun topikoen estereotipoak (helduok irakatsi dizkiegunak) alhora ditzaten. Haur eta gaztetxoak ausart daitezten, bultzatu egin behar dira, desira dezaten, asma dezaten. Azkenik, haur eta gaztetxoak ulertzen jakin behar da, euren proposamenen itxurazko sinpletasunetik harago arakataz”.

Izan ere, haurren parte-hartzea bultzatzea planteamendu politiko integrala da, gure jendartean bazterturik diren hainbat kolektiboren egoera ikusarazten lagundu dezakeena. Haurren begirada txertatzean, herri-egitasmu, egitura eta izaera inklusiboak bultzatzen ari gara edo, behintzat, eztabaida horiek mahaiaren gainean jartzen.

Parte-hartzearen onurak

Parte-hartzearen onurak bi multzotan sailka ditzakegu. Alde batetik, norbanakoa jendartean gaitasun handiagoz eta bere buruarekiko segurtasun handiagoz garatzea ahalbidetzen duten onurak ditugu. Eta, bestetik, komunitateen antolaketa eta funtzionamendua hobetzen dutenak.

Robert Hart-en ‘Parte-hartzearen eskailera’

Roger Hart-ek (New York-eko unibertsitateko irakaslea) ‘Parte-hartzearen eskailera’ metaforaren bitartez, hainbat parte-hartze maila daudela dio. Zortzi maila bereizten ditu, parte-hartze sin-

bolikotik hasi eta parte-hartze errealera iritsi arte:

1. maila: manipulazioa.

Eskaillerako mailarik baxuena da. Kasu hauetan, helduok haurrak erabiltzen ditugu gure ideia eta mezuak transmititzeko. Adibidez: manifestazio batean umeek pankarta bat erabiltzen dutenean.

2. maila: apaingarria.

Maila honetako partaidetza moduak ere aurrekoaren nahiko antzekoak dira. Egoera hauetan, helduek haurrak erabiltzen dituzte, ekintzaren antolakuntzan parte hartzeko inolako aukerarik eman gabe. Adibidez: ingurumenari buruzko manifestazio batean, haurrek zerbait kantatzen dutenean. Azken finean, horrelako egoeretan haurrak ideia bat indartzeko erabiltzen dira, haurrek hori ulertzen duten edo ez ziurtatu gabe.

3. maila: eduki gabeko politika.

Mailaketa honetako ekintzetan, haurra fatxada bezala erabiltzen da, politikariek herritarrek zein prentsa hunkitzeko erabiltzen dute. Adibidez: helduak erakutsita, ‘haurren parlamentuetan’ oso ondo hitz egingen duten umeak agertzen direnean.

4. maila: izendatuak baina informatuak.

Kasu hauetan, haurrak ez dira proiektuaren hasiera eragin dutenak, baina informatuta daude, eta proiektuaren parte sentitzera irits daitezke.

“Haurren parte-hartzea bultzatzea planteamendu politiko integrala da.”

Adibidez: herri batean obra bat egin behar da, eta herritarrei obran lan egiteko eskatzen zaienean.

5. maila: kontsultatuak eta informatuak.

Proiektua helduek sortu eta gauzatu arren, haurrei iritzia eskatu ohi zaie. Horretaz gain, haurrei analisi eta eztabaidarako aukera ere eskaintzen zaie. Adibidez: ikastetxeko irteera bat prestatzeko orduan, ikasleei ea joan nahi duten eta nora galdetzen dietenean.

6. maila: hasierako erabakia helduek hartuta, baina hurrekin partekatuta.

Egoera honetako jardueretan, haurrek eta helduek adosten dituzte erabakiak, maila berean. Adibidez: aurreko adibidearen haritik, irteera horretan egingo diren ekintzak umeekin batera planifikatzen direnean.

7. maila: hasierako erabakia eta zuzendaritza haurren esku.

Maila honetako partaidetza-sistemetan, haurrek erabakitzen dute zer egin, eta helduen parte-hartzea nahiko mugatua da. Adibidez: auzo bateko umeei mahai-futboleko txapelketa bat antolatzen dutenean, helduei kontsultarik egin gabe.

8. maila: hasierako erabakia haurrek hartuta, baina helduekin partekatuta.

tekatuta.

Haurrek proiektua aurkezten, sortzen eta haren garabidean kudeaketa beren gain hartzen dutenean ematen den parte-hartze motari dagokio. Proiektuaren garapenean, aukera dute helduen parte-hartzea proposatzeko. Adibidez: aurreko adibidea, baina helduekin batera koordinatuta.

Haurren eskubideen aldarrikapena

1989. urtean onartu zen, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmena da. Gaur egun munduko estatu eta nazio guztiek onartu dute aipatu hitzarmena, AEBk izan ezik. Hitzarmen horrek subjektu aktibo legez onartzen ditu 18 urtetik beherako pertsona guztiak, bereizketarik gabe.

Eskubide horiek haurrak gizartean duen pisua indartu dadin eta etorkizunean jendartea suntsi ez dadin idatzi ziren. Baina Marta Román genero eta geografia-adituak esaten duenez, gaila gara eskubide horiek bermatzeko?

Haurren eskubideen aldarrikapenak 54 artikulatu ditu, eta, berorietan, haurtzarorari dagozkion oinarriko eskubideak biltzen dira. Hauek dira, lau mailatan multzokatuta:

- **Bizitarako eskubidea**
- **Babeserako eskubidea**
- **Garapenerako eskubidea**
- **Parte hartzeko eskubidea**

Nahiz eta haurren eskubideei buruzko aldarrikapena onartu, haurren parte-hartzea errealitate bihurtzeko pauso asko eman behar dira oraindik, garrantzia zein garapen-bidean dauden herrialdeetan. Izan ere, helduak ez daude

“Ez da nahikoa izango soilik haurren eskubideak aldarrikatzea: ezinbestekoa izango da parte-hartzea bera praktikara eramatea.”

haurrei entzutera ohituta; sarri, gainera, haurrek iritzia emateko gaitasunik ez dutela ere uste dute, parte hartzeko nahikoa informatuta ez daudela pentsatzen dutelako. Bestalde, haurrak sozialki parte aktibo gisa onartzeko eragozpenak antzematen dira helduen artean.

Azkenik, haurren benetako parte-hartzea sustatzeko, ez da nahikoa izango soilik haurren eskubideak aldarrikatzea: ezinbestekoa izango da parte-hartzea bera praktikara eramatea. Izan ere, hirien kalitatea herritarren inplikazio mailaren araberakoa da. Eta hezkuntza, hiritartasuna eta parte-hartzea erlazionatuta dauden kontzeptuak dira.

Nola landu haurren parte-hartzea

Parte hartzeko eskubideak haur eta nerabeek jendartearen duten lekuaren transformazioa eragiten du: **onuradun pasiboak izatetik partaide aktibo** izatera pasatzen dira.

Parte hartzeko ekintza boluntarioa da, derrigortasunak eskubidearen esentziari kalte egiten baitio. Ezinbesteko

baldintza horretaz gain, ondorengo zerrenda honetan daude prozesu parte-hartzaile batek bete beharreko baldintzak:

- **Haurrek ekintza txikienetatik proiektu handienetara doazen prozesuetan parte hartu behar dute,** espazioen diseinu, planifikazio, gauzatze eta ebaluazioan.
- Komunitateko harremanetan haurren parte-hartzeak zentzua izan dezan eta eraginkorra izan dadin, **heldutzailea izan behar du.**
- **Haurren parte-hartzeak beraien eremu hurbilenean gertatu behar du,** abstrakzio hutsetatik kanpo eta eskuragarri dauden **errealitateetatik abiatuta.**
- Parte-hartzeak **hezkuntza-harremanen konplexutasuna bere osotasunean hartu behar du,** asmoeetatik hasi metodologietara iritsi arte, erabakiak hartzeko espazioak ahaztu gabe.
- **Nabaritzen diren aldaketak ekarri behar ditu.** Haurrek beren parte-hartzeak balio duela, beraien egunerokotasunean aldaketak eragiten



dituela eta gainerako herrikideen airtortza jasotzen dutela nabaritu behar dute.

- Parte-hartzearen bidez lortutako haurraren protagonismoak **haurraren ahalduntzea dakar**, bere jardunerako gaitasunez jabetzeko eta berorien bidez ni-an, gu-an, beraien-gan eta guztiongan konprometitutako autonomia garatzen joateko.

Parte-hartze praktiketan murgilduta dauden hurrek aitortzen dituztela sentitzen dute, **autonomiatik eta autonomiarako eraikita egongo den identitatea eraikitzen dute**.

Finean, haurren parte-hartzearen **erronka nagusia kontzeptuaren dimentsio askotarikoak artikulatzen dituzten praktikak diseinatzea da**, praktika horiek herritarren prestakuntzan eta hurrek beren herritar autonomia garatzeko gaitasunean eragingo duten **esperientzia pertsonal eta kolektiboak ekar ditzaten**.

Komunikazioa zintzoa

- Hurrek belaunaldien arteko harremana soilik **komunikazio argi, zintzo**



eta irekian oinarrituta badago onartuko dute. Horrelako komunikazioa lortzen badugu, **haur eta helduen arteko zubi berriak eraikitzen lagunduko dugu**.

- Zubi horietan, bi arazo mota aurkitzakegu:

o Helduzentrismoa:

- Gizon helduak eginbehar sozial eta produktiboa betetzeko asmoa duen eredu irudikatzen du. Ikuspegi horretan, emakumea bere generoagatik baztertzen da, eta haur eta gazteak, berriz, adinagatik.

- Harreman asimetriko eta gatazkatsua sortzen du haurraren eta helduaren artean.

- Ikuspegi hori krisian dago gaur egungo jendartean.

o Belaunaldien arteko blokeoak

- Belaunaldien artean entzuteko eta afektiboki loturak sortzeko zailtasunengatik sortzen dira.

- Ezin dute elkarrekin eraiki, eta kroniko bilakatu daitezkeen tentsio eta gatazkak sortzen dira.

- Jendarte parte-hartzaileago bat eraiki nahi badugu, **eskubide berdinak baina interes eta ezaugarri desberdinak ditugula ulertu behar dugu**. Horrek gatazkak sor ditzake, baina **desberdintasunak gainditzeko eta akordioak lortzeko aukera** ere eman dezake.

- Horretarako, ezinbestekoa da horrelako harremanak garatzeari denbora eskaintzea eta hurrekin hainbat ekintza egitea.

BALIO HEZITZAILEAK

Zergatik aisia hezitzailea?

Ez digu edozein aisia moduk balio, bistan da. Haur eta gaztetxoentzako aisiak, eta berdin helduentzakoak ere, balio hezitzaileak ekarri behar ditu berekin, bai edukietan eta baita egiteko moduetan ere. Aniztasunaren errespetua, parekidetasuna eta aukeraberdintasuna dira horietako hiru; eta laugarrena, bestearen onarpena, inklusibotasuna. Oinarrizko eta abiapuntuko balio gisa har daitezke. Azken finean, **xedea pertsona autonomo eta aske bilakatzea da; eta tokian tokiko behar, nahi eta asmoei erantzutea, hurbileko komunitatea hobetzea, herri-gintza praktikatzea, eta, ezinbestez, euskaldun eta euskal hiztun komunitateko kide izatea.**

Aisialdiaren definizio bat eman beharko bagenu, eskolaren, lanaren, familiararen zein gizartearen esparruetan pertsonak dituen nahitaezko eginbeharretatik kanpo dagoen denbora-tartea dela esango genuke: alegia, bakoitzak nahi duena egiteko erabil dezakeen denbora. Aisia, horrenbestez, denbora librearekin harremana duen jarduera mota bat da. Pertsonak, bere interes eta beharren arabera, modu librean aukeratu beharko luke zer egin eta nola egin. **Aisiako jarduera gauzatzeak gozamena eta poza eman behar dio norbanakoari.**

“Bertakoek eta bertarako diseinatua, ez eredu estandar baten hamaikagarren aplikazioa.”



Aisialdiak, hezitzailea izateko, beharrezkoa du jarduera garatzen den lekua-
ren errealitatearen beharrei erantzutea.

Tokian tokikoa izatea. Bertakoek eta bertarako diseinatua, ez eredu estandar baten hamaikagarren aplikazioa.

Eta, horretarako, gauzatzen den lekua-
ren errealitatearen arabera antolatu be-
harko dira jarduerak –errealitatea abia-
puntutzat hartuta–, leku bateko zein
besteko egoera linguistikoak, demo-
grafikoak, sozialak zein ekonomikoak
desberdinak direlako, eta horrek fun-
tzionamenduan, eragiteko esparruan
eta besteetan eragina duelako. Zenbait
kasutan, desberdintasunak herri bate-
tik bestera daude, eta, beste zenbait
kasutan, herri beraren barruan dauden
auzoen arteko errealitatea ere desber-
dina da. Askotarikoak gara gu geu, eta
askotarikoak dira herrietako errealita-
teak.

Aisiaz gozatzeko, ezinbestean, aisial-
dia edo denbora librea behar da. Ho-

rren ondoren, denbora libre horretaz
egiten den erabilerak askatasuna –
norberak nahi duelako egiten du edo
aukeratzen du– eta gozamina –na-
hiz eta sarri esfortzua ere adierazten
duen, dibertimendu eta plazer-iturri de-
lako– aurreikusi behar ditu. **Gurasoen
eta gazteen aisiarako eskaera ez da
berdina, ez ditu funtzio eta helburu
berdinak.** Eskolaz kanpoko jarduera
guztiak ez dira aisialdi hezitzailearen
barruan kokatzen, zenbait kasutan,
ohartu gabe edo ohartuta, lantzen di-
ren balioak ez direlako hezitzaileak,
eta ia kasu guzti-guztietan jarduera ho-
rien aukeraketan haurrek ez dutelako
erabakitze askatasunik. Esan dugu:
edukia bezain garrantzitsua da egiteko
modua. Biek hezitzaile izan behar dute.
Eta hor txertatzen zaigu, ondo baino
hobeto, haur eta gaztetxoek parte-har-
tzea erdigunean jarri beharra.

Feminismoa

Berariaz azpimarratzen dugun printzi-
pioa da. Gure ekimen guztien ardatz
nagusietako bat. Parte-hartzeak pare-
kidea izatea izan behar du xede; ge-
neroaren ikuspuntutik, hainbat gizon

***“Gurasoen eta gazteen
aisiarako eskaera ez da
berdina.”***



eta hainbat emakume, kopuru berdinetan. Baina ez hori bakarrik, edota ez hori ezinbestez; hori bezain garrantzitsua da genero-erolek sortzen dituzten funtzionamendu desberdinak eta desberdintzaileak kontuan izatea, eta horiei buelta eman eta benetako partehartzea bultzatzeko formulak topatzea (denboraren eta hitzaren demokratizazioa, esate batera) emakumeen kasuan (eta baita haur eta gaztetxoek kasuan ere, haur eta gaztetxo diren heinean eta haur eta gaztetxoek artetik neskatila diren heinean), dela batzordeetan, dela lantaldeetan, dela antolakuntzan, dela agerpenetan eta dela edozein lanetan.

Berdintasunaz ari gara, aukera-berdintasunaz. Genero-berdintasunaren formulazioak, horrenbestez, aukera-berdintasuna eremu guztietara zabaltzea eskatzen du. Alegia, genero-berdintasuna, hitz bakarrean esanda, berdintasuna dela. Horrenbestez, ezinbestekoa da emakume, gizon, ume, gaztetxo, gazte, adindun, langile, langabe, paperdun, papergabe, gaixo, osasuntsu, bazterreko, erdiko... izateko modu guztiak berdintasunaren eta errespetuaren etikatik pasatzea, denok garelako denak, denok garelako gu, eta gu horiek guztiak direlako gizaki izateko moduak.

Aniztasuna berdintasunean

Komunitategintza egiteko lehen oinarria aniztasuna onartzea da. Denok gara askotarikoak, denok gara banako eta bakar, denok gara gaitasundun eta eskubidedun, haurrak ere bai. **Baina denok aukera-berdintasuna izanda eta berdintasun mailatik abiatuta baino ezin da aniztasuna bermatu eta azaleratu.** Aukera-berdintasuna

errealia izango bada, ezinbestekoa da azpiratuaren kasuan aukera handiagoa izatea. Hau da, aukera-berdintasuna ondorioek markatzen dute. Horrelakorik ezean, ezin da komunitategintza osasuntsua eraiki. Berdintasuna eta inklusibotasuna maila guztietan behar dira. Hona hemen ideia batzuk, gure pentsamenduaren oihala josten dutenak:

- Guztiok gara bakar eta askotarikoak.
- Guztiok ahalmen eta gaitasunek balio bera dute.
- Guztiok arteko aukera-berdintasuna bermatu behar da. Balio- eta aukera-berdintasuna da balio heziztzaileen oinarriko ideia.
- Berdintasunak ezinbestekoa du genero-hezkidetza kontuan hartzea.
- Berdintasuna izango bada, partehartze hori guztiori ireki behar zaigu, eta, horretarako, berariazko modu eta metodologiak asmatu eta eratu behar dira.
- Berdintasunak guztion inklusioa izan behar du oinarri. Are, inklusio eta berdintasun hori benetakoa izango bada, baztertuenaren edota ahulenenaren inklusio errealia izango da giltza.
- Berdintasuna errealia izango bada, ahulena jarri behar da erdigunean: umea eta euskara, gure kasuan. Eta horien atzetik sartuko dira gainerako pertsonak eta gainerako hizkuntzak.
- Sormen-gaitasunak egiten gaitu berdin, sormenak ez duelako araurik, eta sormena delako eraikitzeko (ez suntsitzeko) bide bakarra.
- Herrigintza berdintasunaren es-

parruan jokatu bada, herrietako, auzoetako edo taldeetako funtzionamenduak parte-hartze erreala izan behar du.

- Herrigintza berdintasunaren esparruan jokatu bada, gobernantza modu berri batera ekarri behar da administrazio publikoen funtzionamendua eta horrek herritarrekin eta kolektiboekin duen harreman modua. Parte-hartze prozesu erreala eta eraginkorrak zabaldu behar dira.
- Auzolan berri bat berreskuratu behar dugu izan ginen hartatik: denok erabaki, eta denon artean egin, denon onurarako. Nor izatea berreskuratu, komunitate-indarra berriro praktikan jarri. Auzolanean jardutea norberak bere bizitzan bizi duen unearan arabera onartu behar da. Nahi duenak asko eta sarri, nahi duenak tarteka, nahi duenak aldika. Baina denen balioa berdina da.
- Berdintasunak komunitate-zentzua bermatzen du, herritarrak, elkarteak, eskolak, udalak eta ekimenak elkarrekin lanean jartzeko aukera ematen duelako.

Euskara eta euskal kultura

Euskararen biziberritzearen arrazoiak asko dira, eta eremu askotatik arrazoiu daitezke. Gure ustez, badira euskararen biziberritzea ulertzeko eta praktikatzeke modu berriak. Gure ustez, hitz

“Guretzat ona dena partekatu nahi dugulako era askotako jendearekin, edozein dela ere jende horren arraza, jaiolekua eta ideologia.”

gakoa inklusibotasuna da. Galdera bat planteatzen diogu abiapuntu gisa gure buruari: era guztietako aniztasunari – esparru fisikoa, gaitasun kognitiboa, maila sozioekonomikoa, jatorria, kultur ikuspegia, balioak...– zer bide eman behar zaio, aukera-berdintasunean onartua izan dadin?

Baina galdera euskaratik egiten dugu, bizi dugun bigarren mailako egoetatik, egoera minorizatuan eta berreskuratze-bidean den hiztunaren talaiatik, hauxe izango da galdera: **nola ulertzen dugu inklusibotasunaren erronka euskaratik?** Hasteko, esan beharko genuke euskarara biltzeak ez duela eskatzen beste hizkuntzak galtzea, kontrakoa baizik: hizkuntza txikiaren alde egiten den oro hizkuntza guztien aldekoa da. Ez horrela hizkuntza hegemonikoen alde egiten dena. Gainera, euskaldun izateko modua, gure iritziz, euskaradun izatea edota euskararen patuaz kezka aktiboa izatea da. Beraz, azpimarra genezake euskaldun izatea erabat inklusiboa dela gure haur eta gaztetxoengan.

Bestetik, autoestimua ariketa baten aurrean gaude. **Zergatik bildu nahi dugu ahalik eta jende gehien euskararen berreskurapenera edo edozein proiektutara? Guretzat ona dena partekatu nahi dugulako era askotako jendearekin, edozein dela ere jende horren arraza, jaiolekua eta ideologia.**

Hizkuntza-lidergoaz hitz egiten dugunean, bestalde, oinarritzko galdera baten aurrean paratzen gara: zer nahi dut nik?, zer nahi dugu guk? Erantzuna balio batzuen arabera bizi nahi dudala bada, euskaldun izateak eta euskaraz bizitzeak zer leku duen galdetu behar diogu geure buruari. Bide horretan, lidergoa garatu egiten dugu, euskara gu

goazen lekura eramaten dugulako. Eta gu euskararekin goaz parte hartzeko bide berriak bilatzera, haur eta gaztetxo en aisia hezitzailean lan egitera eta herrigintza lantzer a.

Euskara, berez, balio bat da bere baitan, balio hezitzaile bat, inklusiboa eta irekia delako. **Euskarak berak ekar dezakeelako gure ahoz eta gure praktikaz komunitate justuago, irekiago eta parte-hartzaileago bat.** Areago, esan dezakegu euskararen biziberritzeak bide hori urratu behar duela, izan duen menderakuntza ez duelako gaudituko, menderatuta dauden beste eremu guztiekin bat egiten ez badu.

Giza sarea, komunitate-ehuna eta gizarte-ekimeneko erakunde en bil-bea berebizikoagoak dira euskararen kasuan, beste hizkuntza eta kultura nagusietan baino garrantzitsuagoak: eus-

karak taldea behar du, hiztunak beste hiztunak behar dituen legez, eta harreman horrek buruz burukoa izan behar du, erreala birtuala baino gehiago. Horretarako, euskararen berreskurapenak beharrezko du erakundeetako politikarien, teknikarien eta haur eta gaztetxo zibilek eraturako ordezkarien arteko lankidetz a, aitzindaritz a haur eta gaztetxo zibilek izanik, nahitaez. Eta horrek zerikus i zuzena du gobernantza modu berrie kin, parte-hartzearekin.

Euskal kulturak egiteko garrantzitsua du euskaraz bizi nahia birsortzeko. Eta kulturaren transmisioa beharrezko da eremu guztietan, eta bereziki aisian: aisialdiak aukera aparta eskaintzen duelako umezarotik gaztarorako jauzia giro kulturazalean eta euskaltzalean egiteko. Sarritan, euskara eskolako derrigortasunarekin lotzen da, eta aisia, eremu askea, erdare i uzten zaie,



euskarak berez derrigortasuna eta sufrimendua ekarriko balitu bezala, eta ez poza eta dibertimendua.

Euskararen eta aisiaren arteko lotura garrantzitsua da, aipatu berri dugun arrazoiarengatik: hizkuntzaren beharrezkotasunik aske joateko, sarritan eskolan gertatzen denaren kontrara. Esan behar da, hala ere, eskolaren derrigortasun hori eskola dagoen errealitate soziolinguistikoari dagokiola, neurri batean. Eskolak egin behar duela herriak

“Eskola herritarraz ari gara hizketan, azken finean, eta herri hezitzaileaz. Eskolatik plazara joan-etorriko bide ireki batek egon behar du.”



egiten ez duena.

Horrek birformulazio bat eskatzen du, aisiak, eskolak, euskarak, plazerak eta kulturaren transmisioak osatzen duten pentagonoari dagokionez. Batetik, eskola ezin da ulertu auzo edo herritik kanpo eta aisialditik kanpo dagoen eremu itxi bat balitz bezala, ez eta herritarrengandik urruti balego bezala ere. Eskolak herriari irekita egon behar du (baita fisikoki ere), eta herriko eragile izan behar du, beste eragileekin batera. Bestalde, aisiak ere eskolan sartu behar du, euskarazko aisiak. Aisia bera irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesu bat izan daitekeelako, eta ikaskuntza-prozesua aisiatik, plazeretik eta parte-hartzetik igarotzea onuragarri izan daitekeelako, bai irakaskuntza formalean, bai haur eta gaztetxoek heziketa zibikoan.

Eskola herritarraz ari gara hizketan, azken finean, eta herri hezitzaileaz. Eskolatik plazara joan-etorriko bide ireki batek egon behar du. Eta alderantziz. Hori da hezkuntza integral eta esanguraturako bidea. Eta hor hartzen du zentzua hizkuntzaren arnasmune izateak, kulturaren transmisioak eta jolasaren eta gozamenaren garrantziak, bai eskolan eta bai aisialdian.

Horregatik, beharrezko da eskolarekin eta aisiarekin sormena eta zaletasuna bultzatuko duten eskualdeko, herriko eta tokiko ekimenak eta taldeen balorizazioa sustatzeko ekintzak antolatzea, eta horiei protagonismoa ematea. Horregatik, beharrezko da euskarazko kultur produktuen hegemonia eta eredu eta gune propioak babestea eta bultzatzea. Herria sortzaile batzuek eta kultur industria batzuek ekoizten duten ekoizpenaren kontsu-

mitzaile moduan ulertzen bada soilik, kolapsora doa euskararen kultura. Herriaren sorkuntza da gure kulturaren eta gurea bezalakoaren potentziala. Herritarrek sortzaile, antolatzaile, auto-kudeatzaile eta gozatzaile izan behar dute.

Barne-horizontaltasuna

Taldeen baitan norbanakoaren parte-hartzea sustatzeak zera dakar: **lan eta ardurak partekatzea, erabakiak praktika demokratiko erreal, eraginkor eta justuen bitartez hartzea, eta eskubide-berdintasunean oinarritzea.** Horizontaltasunak izateko moduari eta egitekoari egiten dio erreferentzia. Berdinetik berdinerara jotzea denok desberdin izanda, baina jakintza eta praktika guztiak maila berera ekarri eta berdin balioetsiz.

Ingurumena

Funtsezko balioa da ekologiarena. Ingurumenari sortzen dizkiogun kalteez jabetzeari, kontzientzia hartzeari eta ingurumena zaintzeko ardura hartzeari bide eman behar zaie. Horrekin batera, **gure ingurumen naturala eta kulturala ezagutzea, zaintzea eta lantzea ere garrantzitsua da.** Ekologiaren kontzientzia funtsezkoa da etorkizun osasuntsuago eta gizatiarrago bat egiten hasteko bidean. Naturaren ekologia bezalaxe, hizkuntzen eta kulturen ekologia ere praktikatu behar da, hizkuntza eta kultura guztiak maitatuz eta balioetsiz, bereziki gutxiegitasun mailan daudenak; eta horiei laguntzeko gure modua euskara erdigunean jartzea eta etorkizun bat eskaintzea da, naturaren ekologiak animalia eta landare gutxituak desagertuko ez badira eta indartuko badira horiek babestu beharra dagoela aldarrikatzen duen arrazoi

beragatik.

Herrigintza eta komunitatea

Asko hitz egiten da parte-hartzearen inguruan azkenaldion. Politikariek bereganatu duten kontzeptua da, erabilian erabiliaz benetako esanahia galdu duena ia. Parte-hartzea haur eta gaztetxoak antolatzeko tresna baino ez da funtsean; Euskal Herrian bereziki auzolanaren bidez baina baita beste antolara batzuen bidez ere berezko izan dugun zerbait. Eta beharrezko izango dugu politika egiteko beste modu bat gauzatzeko bidean ere. Horretarako, elkartegintzaren, herri-mugimenduen zein herritar ez antolatuen praktika eraldatzaileak indartu behar ditugu, begirada kritikoa elikatuz.

Guztion artean aztertu eta eztabaidatu beharko genituzke bizitza duina zainduko duten eta iraunkortasuna bermatuko duten baldintza egokiak, emakumeen, haur eta gaztetxoaren eta gizonen bizi-kalitatearen eta antolakuntza sozialaren aldeko apustu argia eginez. Eredu soziala, ekonomikoa eta politikoa aldarazten lagunduko duten udalpolitikak eta erabakigune kolektibo eta iraunkorrak eraiki behar ditugu. Eta, udalak aipatu ditugunez, merezi du erakunde publikoen inplikazioaren eta ekimenaren garrantzia azpimarratzea. **Partaidetza-ekimen erreal batek bi subjektoren elkarlana eskatzen du:**

“Lan eta ardurak partekatzea, erabakiak praktika demokratiko erreal, eraginkor eta justuen bitartez hartzea, eta eskubide-berdintasunean oinarritzea.”

herrigintzako eragileena eta herri-erakundeena. Eta helburua herrigintza indartzeko eta garatzeko espazioen sorreran biak eskutik hartuta joatea da. Horrek, bistan da, beste paradigma bat eskatzen eta proposatzen du: nolabait erakunde publikoek ere herrigintza izan behar dute, eta herritarrek ere administrazioaren parte izan behar dute. Azken axioma hori praktikan jartzearekin etorriko dira benetako partaidetza eta benetako herrigintza.

Partaidetza ezin da izan aurrez hartutako erabaki politiko baten legitimaziora tresna, ez eta gatazkak ekiditeko azken orduko prozedura edota marketing politikorako lanabesa ere. Borondate demokratizatzailea izan behar du, lan egiteko moduak aldatu behar ditu, eta antolaketa-eredu berri batean oinarritu behar du. Horretarako, herritarren sektore guztietara hurbildu beharko dugu. Aniztasuna eta botere-asimetriak kontuan hartuz, komunitatearen beharrian, interes eta arazoen inguruko eztabaida irekiak bermatuz. Ez dugu legitimaziorako parte-hartzerik nahi, eraldaketaren alde lan egingo duen herritarren parte-hartzea baizik.

“Partaidetza-ekimen erreal batek bi subjektuen elkarlana eskatzen du: herrigintzako eragileena eta herri-erakundeena.”

“Partaidetza ezin da izan aurrez hartutako erabaki politiko baten legitimaziora tresna.”

Euskal herritarrok badugu hau guztia izendatzeko berezko modu bat: auzolana. Auzolan tradizional honen ezaugarriak zazpira ekar litezke: egiturazkoa izatea, auzo guztien parte-hartze zuzena ahalbidetzea, erabakigunea herri-batzarra izatea, bizi beharri erantzuteko ezinbesteko izatea, talde-tasuna sendotzea, herrigintza xede izatea eta erritualizatua izatea (plazan sokadantzaren bitartez adierazten dena). Egitura finko moduan ia-ia galtzeaz dagoen parte-hartze sistema bat da, haurra eta gaztetxo bera, bai eta biziera bera ere, aldatu direlako; baina filosofia hori bizirik dago gure artean. Euskararen berreskurapenaren historia da, esate batera, horren froga. Auzolanaren filosofia hori egituraz eta helburu berriz gaurkotu liteke, eta horretan dabilta kulturagintzako ekimen asko azkenaldian. Gaurko begiz, sei oinarri jar dakizkioke auzolanari:

- Herrigintza helburu duen ekimena izatea (edozein elkarlan ez da auzolan).
- Jendearen funtzio soziala indartzea.
- Auzolankidetzat buru-belarri dabilena eta ekintza xume batean parte hartzen duena, biak aintzat hartzea. Erabakiak adostea eta zereginak banatzea.
- Ikasketa-prozesu eraldatzaile bat izatea.
- Horretarako egitura eta lan-modua definitzea: herri-batzar ireki eta inklusiboa, eta parte-hartze errealerako moduak baliatzea.

GURE IZAERA



Zeharkakotasuna

Euskara, kultura, ongizatea, haurtzarora, gazteria, gurasoak, helduak, aisia, hezkuntza, natura, herrigintza, feminismoa, saretzea, dinamizatzea... eta beste eremu eta kontzeptu batzuk zeharkatzen dituen egitasmoa izan nahi du, eta, horrenbestez, eremu horietako guztietako jendearen topaleku ere bai.

Ludikotasuna

Gure proiektu eta ekimenak ludikotasunean oinarritzen dira. Jolasa da bitarteko eta helburu, jolastea, jolaste hutsagatik; jakin badakigulako jolasa dela ikasteko bide egokiena. Jolasaren ezaugarri da sormena, eta sormenaren lanketa kolektiboak jakintza egoki eta partekatua eraikitzea dakar. Sormena

eraikitzailea izango bada, askatasuna izan behar du lagun, norberarena eta taldearena. Eta, askatasunean jarduteko, ezinbestekoak dira elkarrizketa, errespetua eta negoziazioa praktikatzeara, eta hori da arduratsu eta enpatiko izaten ikasteko bidea. Garrantzitsua da umeei askatasun-espazioak eskaintzea, eguneroko bizitza goitik behera arauz jositako eremu delako. Jolasa, sormena, askatasuna eta ardura lantzeak gozagarritasuna eta asegarritasuna ekarri ohi ditu.

Dinamikotasuna

Dinamikotasuna berezko ezaugarria da. Izan ere, parte-hartze errealak jakintza guzti-guztiak maila berean onartzea eskatzen du, eta jakintzaren eta ekintzaren transmisioa (goitik beherako irakaspena) eta sozializazioa (berdinetik berdinerara) dakar. Elkarri irakatsi baino gehiago, elkarrekin ikasten da, eta elkarrekin eraikitzen da. Honenbestez, prozesu horiek erabat aldakorrik dira, dinamikoak, unean-unean eta taldearen baitan nahiz banakoaren eta taldearen beharren arabera aldatzen eta eraldatzen doazenak. Dinamismoa beharrezko da, ez aldatze hutsagatik, baizik eta egin, balioetsi eta hobetzeko prest egotea ezinbesteko delako; horrenbestez, egitasmo irekiak, moldagarriak eta aldiro-aldiro egokituko direnak izan behar dira eskuartean. Hobetzeko eta justuago izan nahi dugulako gaude prest aldatzeko.

Sarean lan egitea

Sarean lan egitea saretzea da, alegia, komunitatea osatzea. Parte-hartze metodologiak erabiltzea dakar, parte hartzen dugun pertsonak izatetik harago, partaide izatera igarotzea. Komunita-

teko kide izatea. Gure proiektuak, bere eremu jakinean eta izaera konkretuan, zirkulu zabalagoekin, komunitate handiagoekin eta beste komunitate batzuekin elkarrizketan ari dira etengabe. Azken finean, herrigintza modu integral eta inklusibo bat baita proposatzen dena.

Konpromisoa

Horrenbestez, engaiamendua edo konpromisoa giltzarri da, bai taldeko gainerako kide eta eragileekiko konpromisoa, bai taldeak adosten eta berradosten dituen bide eta proposamenekikoa, bai eta prozesu osoarekikoa ere. Horrela izan dadin, berdintasunezko aukerak eskaini eta ardurak eman behar dira, lankidetzara eta taldegintzara delako xede.

Laborategi-izaera

Proiektuen ezaugarri izango da, hala-beharrez, hein handi batean laborategi izatea. Egitasmo berri eta bakar izan behar dutelako, eta berariaz lekuan lekuko herri, komunitate edo talderi begira egon behar dutelako. Zapaltzen duen lurrari eta jendeari egokitu behar zaio; areago, jendeak erabaki behar du zer-nolakoa izango den. Horregatik diogu laborategi izan behar dutela, egindako urratsek eta hartutako erabaki eta konpromisoek bideratuko dituztelako hurrengo urratsak, eta egitasmoen izatea eta diseinua egin ahala zehaztuko delako eta gorputz hartzen joango delako. Ez da aurrez diseinatu eta erabakitako egitasmo bat goitik beherako lantzea.

Behetik gorako ekimenak

Herri-ekimenetik abiatutako eta herri-ekimenean oinarritutako egitasmoa izan behar du. Modu horizontalean:

parte-hartzea taldeen bitartez bide-ratuta eta lan-banaketa eta erabakiak hartzea praktika demokratikoetan eta berdintasunezkoetan oinarrituta, egitasmoak eraikitzen joan beharko du.

Ekimenen autonomia

Egitasmoak lekuan lekukoak izango dira, gogo, indar, behar, funtzio eta baliabideen arabera.

Beste ekimenekiko koordinazioa: aldi berean, tokiko beste ekimenekin koordinatu beharko dira, eta denak bate-ratzeko guneak eta praktikak sortzeko aukera eman beharko da. Saretzeko bokazioa izango dute, beraz. Horren baitan, hiru ezaugarri hartu behar dira kontuan:

Dagoena ez ordezkatzeko printzipioa: herrietan dagoen dinamikarik, ekimenik, talderik edo programarik ez da ordezkatu. Ez da berririk sortuko. Herrian dauden baliabi-deak, giza taldeak, egitasmoak, ekimenak, programak eta bestelakoak errespetatuko dira; eta egitasmoan sartzeko gonbita eginda, eragile

aktibo izateko aukera irekia emango zaie, herriko eragileen esperientzia eta gogoia izango baitira egitasmo honen bermeetako bat.

Ez dagoena sortzeko printzipioa: herrian ekimen edo programa jakin bat ez badago eta batzordeak hala deliberatuz gero, berria sortu ahal izango da.

Herrietako bestelako prozesuak kontuan hartzea eta, ahal dela, bateragarri edo osagarri egitea: herrian dauden beste prozesu eta egitasmoekin –direla kulturalak, direla parte-hartzaileak– uztartzeko bokazioa izango du printzipioz. Elkarlana nola gauza daitekeen ikusiko da, nola erabil daitekeen prozesu hau beste egitasmo batzuen onurarako, eta alderantziz. Haur eta gaztetxoei zuzendua izanagatik, herrigintza-sarea egitea delako helburu nagusietako bat. Egitasmo honek balio lezake bestelako prozesuak praktikara ekartzeko edo zenbait prozesuren arteko loturak praxira ekartzeko ere.



HAURREN AISIALDI PARTE—HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN

Koaderno bilduma:



Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen



Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik



Nola egin udaleku parte-hartzailea



Nola egin ludoteka parte-hartzailea



Parkeak bizitzeko modu berriak